

**DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ETA IRUDIEN eta AHOTSAREN GAINEN
ESKUBIDEA ERABILTZEKO BAIMENA**

Izen-abizenak:

Helbidea:

NAN:

Jaioteguna:

ADIERAZTEN DUT

1. JARDUN Euskara Elkarteak eta GOIENA Komunikazio Taldeak elkarlanean antolatu duten 'Algaraka' bakarriketa lehiaketan parte hartu nahi dudala. Lehiaketan parte hartzeak berekin dakarrela nire datu pertsonalak ematea eta nire irudiak eta ahotsa grabatzea argazki eta bideoen bitartez.
2. Baimena ematen diodala GOIENA Komunikazio Taldeari nire datu pertsonalak trata ditzan komunikazio helburuetarako eta lehiaketaren ibilbiderako beharrezko den neurrian.
3. Baimena ematen diodala GOIENA Komunikazio Taldeari euskarri desberdinetan nire irudia eta ahotsa graba ditzan eta argazki zein bideo horiek erabili eta tratatu ditzan beti ere komunikazio helburuetarako saioaren ibilidearen baitan.
4. Baimena ematen diodala GOIENA Komunikazio Taldeari grabatutako nire irudiak eta ahotsa, eta hartutako argazkiak on line (web orrian eta sare sozialetan) eta off line erabil ditzan eta zabal ditzan, GOIENAREN proiektuaren barruan edo parte den beste elkarte edo sozietateen barruan, beti ere komunikazioa eta hedabideak helburu.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK KOOPERATIBA ELKARTEAK honako hau adierazten dio beheko sinatzaileari:

Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, ohartematen dizugu zure datu pertsonalak fitxategi

batean sartuko ditugula, eta fitxategi horren ardura honako honena izango dela: GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPERATIA ELKARTEA. Eta hori egingo dugula zurekin daukagun harremanetik eratorritako konpromisoak bete ahal izateko.

Eskubidea daukazu datu pertsonal horiek eskatzeko eta ikusteko, jasota dauzkagun datu pertsonalei buruzko informazioa eduki ahal izan dezazun, tratamenduaren xedeak zeintzuk diren jakin dezazun, datuen hartzaileak eta gordetzeko epeak zeintzuk diren jakin dezazun; eskubidea daukazu datu okerrak zuzentzeko eskatzeko eta osatu gabe dauden datuak osatzeko; eskubidea daukazu datuak ezabatzeko eta ezeztatzeko, eta datu pertsonalen tratamendua aurkatzeko edo mugatzeko zure baimena erretiratzea erabakitzen duzuenean. Aipatutako eskubideok hemen gauza ditzakezu: GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA – Otalora lizentziaduna 31. 20500 Arrasate.

Kontrakorik adierazten ez diguzun bitartean, ulertuko dugu zure datuak ez direla aldatu, edozein aldaketen berri guri jakinarazteko betebeharra hartzen duzula, eta zure baimena daukagula ALGARAKA egitasmoaren baitan zurekin harremana egin eta egitasmoa aurrera eraman ahal izateko.

Data eta sinadura: